

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko uztailaren 9tik 15erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/07/13

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko ekainaren 14koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Harakintza sektoreko Estatuko hitzarmen kolektiboa. **11622 xedapena - 55 or.**
- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko ekainaren 27koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Lorezaintzako Estatuko 2021-2024ko hitzarmen kolektiboa. **11623 xedapena - 40 or.**

2022/07/14

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko ekainaren 14koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Esne-industrien eta haren eratorrien industrien Estatuko hitzarmen kolektiboko 2020ko ordainsarien behin betiko taulei buruzko Akta. **11696 xedapena - 3 or.**
- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren Paperaren eta arte grafikoan merkataritza-zikloaren hitzarmen kolektiboko 2022rako luzapenari eta ordainsarien berrikusketari buruzko erabakiak. **11699 xedapena - 5 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/07/09

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Gardentasuna. Informaziorako sarbidea. Gobernu ona.** 14/2022 Legea, uztailaren 8koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea

aldatzen duena, kontratazio publikoetan mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen (ETE) estatistikak arautzeko. **11392 xedapena - 3 or.**

2022/07/12

- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Sektore elektrikoa.** 568/2022 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, zeinaren bidez proba-banku arautzailearen esparru orokorra ezartzen den, sektore elektrikoan ikerketa eta berrikuntza sustatzeko. **11511 xedapena - 20 or.**

2022/07/13

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza.** 6/2022 Lege Organikoa, uztailaren 12koa, Tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege integralaren osagarria, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzekoa. **11588 xedapena - 3 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza.** 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako integrala. **11589 xedapena - 39 or.**

2022/07/14

- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA. Antolamendua.** ICT/654/2022 Agindua, uztailaren 10ekoa, zeinaren bidez sortzen den Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Iruzurraren Kontrako Batzordea, eta haren osaera eta funtzioak ezartzen diren. **11633 xedapena - 4 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Ingurumena.** 486/2022 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, zeinaren bidez aldatzen den apirilaren 5eko 239/2013 Errege Dekretua. Horren bidez, arauak ezartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 1221/2009 (EB) Erregelamenduko arauak aplikatzeko, ingurumen kudeaketako eta ikuskaritzako sistema komunitarioan (EMAS) erakundeek borondatez parte hartzeari dagokionez, eta 761/2001 (EB) Erregelamendua eta Batzordearen 2001/681/EB eta 2006/193/EB Erabakiak indargabetzen dira. **11634 xedapena - 6 or.**

2022/07/15

- **BARNE MINISTERIOA. Mugak.** INT/661/2022 Agindua, uztailaren 14koa, zeinaren bidez luzatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren

herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. **11722 xedapena - 2 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/07/13

- **LEHENDAKARITZA.** 5/2022 LEGEA, ekainaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearena. **3172 xedapena - 36 or.**

2022/07/14

- **LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA.** AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokiaren kanona zehazteari buruzkoa. **3202 xedapena - 22 or.**

2022/07/15

- **LEHENDAKARITZA.** 6/2022 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. **3226 xedapena - 19 or.**
- **LEHENDAKARITZA.** 7/2022 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Landa-Ingurunearen Garapenarena. **3227 xedapena - 27 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/07/13

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. BATZAR NAGUSIAK. FORU ARAUAK.** 17/2022 Foru Araua, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena berresteko, Arabako Lurralde Historikoan garraioaren arloko datu aurreratuak sortzeko, Europar Batasunak finantzatzen duen Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation EU). **2028 xedapena - 13 or.**

2022/07/15

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU AGINDUAK (NEKAZARITZA SAILA).** 264/2022 Foru Agindua, uztailaren 13koa. Nekazaritza Saileko diputatuaren foru agindua, debekatzen duena suaren erabilera aldi baterako Arabako Lurralde Historikoan, eta finkatzen dituena nekazaritza eta baso lanak egiteko gomendioak. **2116 xedapena - 5 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/07/11

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** 2022ko ekainaren 22ko Osoko Batzarrean hartutako erabagia, 3/2022 Foru Dekretu Arauemailea berresten dauena. Foru dekretu arauemaile horren bidez, aldatu egiten da otsailaren 8ko 1/2022 Foru Dekretu Arauemailea, zeinak aldatu egiten dauen Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua, inportazioei eta hornidura batzuei lotutako aldi baterako salbuespenei jagokenez, COVID-19aren pandemiari erantzuteko, eta tributu-arloko neurri jakin batzuk luzatzen dira balio erantsiaren gaineko zergan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan. **I - 631 xedapena - 1 or.**

2022/07/13

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA.** Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 5213/2022 FORU AGINDUA, ekainaren 30ekoa. Zeinaren bidez sortzen baitira erregistro-gaietan laguntza emateko bulego laguntzaileak, onartzen baita erregistro-gaietan laguntzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren bulego zerrenda. **I-637 xedapena - 3 or.**

2022/07/15

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Ogasun eta Finantza Saila.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 674/2022 FORU AGINDUA, uztailaren 13koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren apirilaren 12ko 540/2022 Foru Agindua aldatzen duena; azken horren bidez, zenbait energia-produkturen azken prezioaren ezohiko eta aldi baterako hobaria eskatzeko prozedura arautzen da. **I-668 xedapena - 3 or.**

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako saila.** Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru-diputatuaren 1939/2022 FORU AGINDUA, uztailaren 6koa, Bizkaiko Hirigintza Plangintzaren Erregistroko administrazio-jarduketa automatizaturako sinadura elektronikoko sistema gisa Zigilu elektronikoa nahiz Egiaztapen-kode Segurua EKS ezartzeko. **I-648 xedapena - 4 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/07/12

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 357/2022 Foru Agindua, uztailaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 244/2022 Foru Agindua, maiatzaren 3koa, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobaria eskatzeko prozedura arautzen duena. **04608 xedapena - 3 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 358/2022 Foru Agindua, uztailaren 6koa, 2022-2023ko sozietateen gaineko zergaren zerbitzuen karta onesten duena. **04629 xedapena - 7 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO